

BEZEROAREKIKO HARREMANAK:

Bezeroekin izango dugun harremana pertsonala eta automatizatua izango da. Alde batetik, pertsonala izango da hainbat dendetan saltzaileen adeitasuna bezeroen eskura egongo delako eta, bestaldetik, automatizatua izango da web orriaren bitartez bezeroen eskaera guztiak asetuko ditugulako. Gainera, bezeroak mantentzeko eskaintza berriak egingo ditugu, adibidez, urtean bitan izango dira.

Bezeroak gure proposamenari lotuta mantentzeko, hozkailuak bermea izango dute. Bermea handia izango da, bermea gero eta altuago izanda, orduan bezeroaren ziurtasuna handiago izango da ere.

Horrez gain, mantenimendurako deskontuak egingo ditugu. Eta, gainera, hozkailuak eraginkortasun energetikoa izango du.

